

## Covid-19 pandemia.mp3

**Esataria:** Egun on. Gaur, COVID-19 pandemiaren inguruko bizipen batzuk ezagutuko ditugu. Hiru lagunekin egingo dugu elkarrizketa, eta pandemia horrek beren bizimoduan zertan eragin zien kontatuko digute. Kaixo hiruroi.

**Erizaina:** Kaixo!

**Saltzailea:** Arratsalde on!

**Ikaslea:** Kaixo!

**Esataria:** Nola bizi izan zenuten COVID-19 pandemiaren garai hura?

**Erizaina:** Nik Galdakao ospitaleko ZIU unitatean lan egiten dut erizain moduan. Gogoratzen dut hasiera batean beldurra sortzen zidala COVID-19 gaixoen alboan jartzeak. Gainera, berez, ez genekien birusaren aurrean nola jokatu behar zen, eta ezjakintasunak beldurra ematen zidan. Bestetik, egoera hura oso estresagarria izan zen, bai lanean, bai etxean... Azken finean, ezinezkoa da etxera horrelako bizipenak ez eramatea.

**Saltzailea:** Nik, egia esan, kezka handiarekin bizi izan nuen, bi gauzarengatik: alde batetik, gure denda irekita mantendu genuelako eta hasieran ez genekielako oso ondo zer babes-neurri hartu behar genituen; bestetik, nire ama zahar-etxe batean zegoelako eta oso kezkatuta egon ginelako.

**Ikaslea:** Ba, nik ez nuen oso ondo bizi izan. Etxetik atera gabe egon ginen denbora luzean, eta etxean egotea oso aspergarria eta estresagarria egin zitzaidan. Gurasoak ere biak etxean zeuden eta ahizpa ere bai; hortaz, denak egun osoan elkarrekin. Uf! Gehiegizkoa zen!!

**Esataria:** Nolako baldintzetan aritu zineten?

**Erizaina:** Hasierako asteetan, atsedenerako tarterik ez genuen hartzen, sekulako lana zegoen box bakoitzean. Eta hori dena izerditan, EPI jantziak soinean genituelako. Oso gogorra izan zen.

**Saltzailea:** Guk, lehenengo unetik, eskuetarako gel hidroalkoholikoa eta plastikozko eskularruak jarri genituen sarreran, etortzen ziren bezeroentzat. Ez genuen EPI jantzirik erabili, baina, lanerako, maskara eta plastikozko eskularruak erabili genituen egun osoan, eta garbiketa-lanetan ibili ginen etengabe dena txukun izateko.

**Ikaslea:** Eskolak online izan nituen eta lan mordoan egin behar izan genuen. Batzuetan, konexioarekin arazoak izan nituen, etxeko guztiak ari ginelako online lanean aldi berean.

**Esataria:** Isolatuta egotea tokatu zitzaizuen?

**Erizaina:** Egia esan, ez nuen isolamendu hori sufritu. Etxean hiru erizain bizi ginen; beraz, elkarrekin pasatu genuen konfinamendua, esperientziak partekatuz. Deskonektatzeko, hala ere, ez zen hain ona denok osasun-munduan lan egitea.

**Saltzailea:** Niri ez zait tokatu isolamenduan egotea, baina amari bai. Bera ez zen kutsatu, baina beste egoiliar batzuk bai. Zahar-etxeko egoiliar guztiak isolamenduan egon ziren, eta ia hiru hilabete eman genituen ama ikusi gabe.

**Ikaslea:** Ez, baina nire aita isolatuta egon zen etxean, bere logelan. Gaixotu egin zen, baina ez genekien koronabirusa zeukan ala ez. Amak medikuari deitu zion, eta hark esan zion bere logelatik atera gabe egoteko 14 egunez, badaezpada. Amak atean jartzen zion bazkaria, eta etxeko komun bat berak bakarrik erabili zuen.

**Esataria:** Zer izan zen zuretzat bizi izandako gauzarik gogorrena?

**Erizaina:** Familien sufrimendua eta gaixoak isolatuta ikustea. Ahal izan genuen guztia egin genuen isolatuta ez sentitzeko, baina haientzat ez zen berdina alboan familia edukitzea edo ezagutzen ez zuten pertsona bat izatea.

**Saltzailea:** Niretzat, hainbeste denboran ama bisitatzeko aukerarik ez izatea. Oso gogorra egin zitzaigun, eta berari ere bai.

**Ikaslea:** Niretzat gogorrena izan zen etxetik atera gabe egon behar izatea, lagunak ikusi gabe. Bueno, ikusi, ikusten nituen telefono bidez edo skype bidez, baina ez da gauza berbera. Eta eskolak on-line izatea ere ez zitzaidan gustatu. Nahiago ditut aurrez aurreko klaseak; azalpenak hobeto ulertzen ditut horrela.

**Esataria:** Mila esker, hiruroi, zuen bizipenak kontatzeagatik.

**Erizaina:** Ez horregatik.

**Ikaslea:** Ez da ezer.

**Saltzailea:** Zuei, gonbidatzeagatik.